

## GEOGRAFIA ETA HISTORIA

Hezkuntza-sistemaren xedea, herritar gogoetatsu eta sortzaileak prestatzea da, gure gizartea gero eta anitzagoa eta aldakorragoa baita. Alde batetik, honek areagotzen du nerabezeroan irudimentsuki pentsatzeko gaitasuna sustatzearen beharra, premia berriei egokitzeko. Bestalde, gizarte demokratikoei prestatutako eta kognitiboki emantzipatutako pertsonak behar dituzte, balio demokratikoak defendatzeko gai direnak.

*Geografia eta Historia* jakintzagaiak, Lehen Hezkuntzako *Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza* arloko kompetentziak garatzeko prozesuari jarraipena emateaz gain, iragana aztertzeak gaur

egungo gizarte-bizitza ulertzeko duen garrantzia definitzen du, egungo munduan zentzua hartzen duten tresna kontzeptualak eskaintzen dizkigulako. Are gehiago, jakintzagaiak gazteen adimenaren garapen orekaturako beharrezkoak diren datuak eta jarduera intelektuala ematen digu. Beraz, eztabaidaezina da *Geografia eta Historia* lantzeko beharra pentsamendu eta judizio analitiko askerako gaitasuna sustatzen laguntzen duen jakintzagaia dela. Geografiak gure habitata, honen indar eta ahuleziekin batera, deskribatzen duen bitartean, Historiak nortzuk garen eta horren zergatiak jakiten laguntzen digu, gertakariak ezagutza eta ondorengo gogoetetatik abiatuta. Eta horrek guztiak hausnarketa pertsonaletan oinarritutako baliabideak ematen ditu, informazioa baloratzeko eta alderatzeko eta pentsamendu kritikoa erabiltzeko.

Beraz, ondoriozta dezakegu jakintzagai honen oinarritzko jakintzak irakasteak, ez dituela bakarrik barne hartzen Lurrari eta iraganari buruzko ezagutzak, baizik eta gertaeretatik abiatutako gogoeta egitea, eta iraganaren eta orainaren arteko erlazioak bilatzea ere. Hau da, gizartean aurrera egiten lagunduko duten herritar zentzudunak, moldagarriak eta pentsakorak sortzeko tresnak. Eta hori guztia, jakina, Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumaren parte den diziplina gisa, Euskal Herriko Geografia, Historia eta kultura, baita gizartea, balioak, erakundeak, ekonomia, zerbitzuak eta sistema politikoa eta gobernu-sistema ere kontuan harturik.

Oinarritzko jakintzak sekuentziatzeak, banatzeak eta mailakatzeak, diziplinaren ordena kronologikoa errespetatzen dute; baina, euren planteamenduen bidez, espirtu pedagogiko berritzailea ere proposatzen dute. Konbinazio horrek, irakaslearen lanarekion batera, ikasleak oinarri sendoak lortzera bideratuko ditu, lagunduko diena gizakien Historia eta Lurra, non aurrekoa garatzen den, panorama orokor batean egoki kokatzen, eta, pixkanaka eta nerabeen eboluzio psikokognitiboa kontuan hartuta, euren irteera-profila osatzen. Jakintzagai hau Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza osoan zehar lantzeak lagundu egingo du aipatutako profila osatzen duten funtsezko konpetentziak pixkanaka garatzen.

Horrela, *Geografia eta Historia* ikasteak zuzenean lantzen ditu Herritartasunerako Konpetentzia -kultura politikoa, pentsamendu kritikoa eta herritarren parte-hartze aktiboa garatzen laguntzen duelako-; eta Gaitasun Pertsonala, Soziala eta Ikasten Ikastekoa —gertaerak erlazionatzen, hausnartzen eta aldaketetara egokitzeak eta bizitza osoan zehar ikaskuntza kudeatzeko beharri erreparatzen irakasten du eta. Kontzientzia eta Adierazpide Kulturalerako Konpetentziaz ere arduratzen da, edozein motatako adierazpen artistiko ezagutzeak bai sentsibilitateabai Ondare Historiko-Artistikoa aintzat hartzea, errespetatzea, balioestea eta hartaz gozatzea gauzatzen dituelako. Zeharka, diziplina honek Ekintzaitza Konpetentzia ere garatzen du; izan ere, ikasleei laguntzen die bizitzan zehar izango dituzten beharrak, erronkak eta aukerak onartzen, gaur egun globalizatuta dagoen eta etengabe aldaketak jasaten dituen mundura egokitu ahal izateko. Eta azken hori egiten du Lurra eta bere funtzionamendua ezagutzearen bidez eta gizakiak, iraganean eta gaur egun, dituen erronkak (ekologikoak, ekonomikoak edo sozialak izanik) identifikatuz. Hizkuntza Komunikaziorako Konpetentziari eta Konpetentzia Eleaniztunari egiten zaien ekarpena eztabaidaezina da, ezinbestekoa baita edozein hizkuntzatan komunikatzea informazioa transmititzeko; eta Konpetentzia Digitala funtsezkoa da gaur egun edozein jakintzagaitan trebatzeko. Azkenik, Geografia eta Historia jakintzagaiak Matematika, Zientzia, Teknologia eta Ingeniaritzarako Konpetentziak (STEM) garatzen ere laguntzen du, metodo zientifikoak, arrazoiketa logikoa eta irudikapen matematikoa erabiltzea eskatzen baititu informazioa aztertzean eta problemak ebaztean.

Horri guztiari, Geografia eta Historiaren diziplinartekotasuna gehitzen badiogu, gainerako jakintzagaiekin batera lan egiteko aukera ematen duena, gure planeta eta gure iragana ezagutzeko beharriaren ondorioa —egungo munduan kokatzeko eta hura ulertu, zaindu, aberastu eta dituen xehetasunez gozatzeko— saihestezina bihurtzen da. Historian zehar, jakintza-diziplina guztiak gizakiok etengabe planteatzen ditugun galderei eta beharrei erantzuteko garatu direla kontuan izanik, ukaezinak dira, besteak beste, Geografia Fisikoaren eta Biologiaren eta Geologiaren arteko harremana, Industrializazioen Historiaren eta Teknologiaren artekoa, eta Historiaurrearen eta Kimikaren artekoa. Azken hori lagungarria da, adibidez, datazioak egiteko, edo gaurkotasan handia duen zerbaitetan, hala nola Epidemiologia edo Medikuntza, eta horien historia.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza osoan zehar, *oinarritzko jakintzen* bidez egindako lanaren bitartez eskuratu eta garatu diren trebetasunei *konpetentzia espezifikoak* deitzen zaie. Gure kasuan, lau kurtsoko pixkanakako lan eta ikaskuntza prozesua egin ondoren, trebetasunak honako hauek izango dira:

Geografiaren eta Historiaren inguruko gaiei buruzko ikerketa eta argudiaketa; paisaiaren elementuen identifikazioa eta azterlana; antolaketa politikoa, gertaeren bilakaera eta denboran zehar gizarte desberdinek izan dituzten erronka nagusien —bai sozialak, bai demografikoak, ekonomikoak eta kulturalak— ezagutza; joera demografikoen, bizi-zikloen eta bizimoduen deskribapena; sistema ekonomikoak eta horien grapen prozesuen azalpena; identitate indibidual eta kolektiboen oinarrien identifikazioa; egungo kultura anitzeko errealitatea osatu duten prozesu geografiko, historiko eta kulturalen ezagutza eta ulermena eta zibilizazioek Historian zehar egindako ekarpen kultural, artistiko, zientifiko eta pentsamenduzkoen ezagutza.

Horrek guztiak gure ikasleei lagunduko die ezagutzak eskuratzen eta errespetuzko pentsamendu kritikoa garatzen; Lurraren kontserbazioa, hobekuntza eta erabilera jasangarria sustatzen; sistema demokratiko barruan, herritarren parte-hartzea eta gizarte-kohesioa sustatzen; egungo errealitatea ulertzen eta, erronken aurrean, proposamen alternatiboak aintzat hartzen; gizarteak bilakaera historikoaren ondorio direla ulertzen eta oinarriak izateko alternatibak sustatzen eta gizartearekin eta ingurunearekin konpromisoa hartzen; egungo mundu ekonomikoa, baita gizarte-eskubideen garrantzia eta oinarrizko baliabideen eskuratze unibertsalaren munta ulertzen; gizatalde identitateen esanahia ulertzen, horiekin lotutako sentimenduak errespetatzen eta haien legatu historiko eta kulturala baloratzen eta mendebaldeko kulturaren erroak eta eraldaketak ulertzen baita egungo edozein kulturaren adierazpenak errespetatzen ere.

Eta ikasleek egindako aurrerapenak baloratzeko, irizpide pedagogikoak kontuan hartuz eta nerabearen ikaskuntza-prozesuari lotuta, ebaluazio-irizpideak zikloka banakatuta eta sekuentziatuta daude.

Hala ere, oinarrizko jakintzak izango dira ikasleak eramango dituztenak kompetentzia espezifikoak eskuratzera, irteera-profil fidagarri bat lortzeko helburua izanda. Horregatik, jakintza horiek ezinbestekoak dira gizakiok denboran zehar mundua ulertzeko izan ditugun modu desberdinen transmisio zuzena behar bezala egin ahal izateko. Era berean, errealitate aldakorak, gure planetari berari gertatzen zaien aldaketek eta gizakiaren eraginak baldintzatzen dituztela, hau da, aldaketa horietako asko gure ekintzen ondorio direla, bereganatzeko. Horregatik, ezinezkoa litzateke errealitatea aztertzea, ezta etengabeko aldaketa hautematea ere, gutxienezko datu geografiko eta historiko batzuk ezagutu gabe; zehatzak eta pedagogikoki antolatuak direnak, eta bilakaera horiek guztiak zeintzuk izan diren erakusten dizkigutenak.

Jakintza horiek, beraz, banatu dira lehen eta bigarren mailetarako hiru multzotan, eta hirugarren eta laugarren mailetarako bi multzotan: *Egungo Munduaren Erronkak*, Geografia Fisikoaren, Giza Geografiaren eta Geografia Ekonomikoaren ezagutzarekin bat datorrena; *Gizarteak eta Lurraldeak*, hau da, Historiari dagozkion oinarrizko jakintzak; eta *Gizabidezko Konpromisoa*, aurrekoen eduki zehatzak egungo errealitatearekin lotzen dituen multzo transbertsal bat. Lehenengo bi multzoen barruan, jakintza batzuk era transbertsanean ere tratatu beharko dira eta, ondorioz, ikaste-egoera guztietan landu beharko dira. Gainerakoak jakintzagaiari dagozkion jakintza espezifikoak dira eta jorratu ahal izango dira adierazitako moduan (paisaiaren, klimaren, politikaren, gizartearen, erlijioaren, kulturaren eta abarren erlazioetatik abiatuta) edo ikaste-egoerak pedagogikoki antolatzeko helburuarekin konbinatuta, adibidez, etapa historikoen arabera edo irakasle-taldeak egokiagotzat joko duen moduan.

Geografia eta Historia jakintzagaiaren erronka nagusia da, baliabide horien bitartez, irakasleak, jakintzaren jabe izanik, gida gisa balio izatea ikasleak beren ikaskuntzaren protagonista izan daitezen, eta figura pasibo eta ezagutza-hartzaile soil izateari utz diezaieten. Jakintza aztertu, aplikatu eta sortzeko irakaskuntza eta informazioa ezagutza bihurtzea uztartu behar ditugu, horrela jakin-mina, pentsamendu kritikoa, autonomia eta, ondorioz, erresilientzia sustatuz. Lotura hori gabe, ez da motibaziorik egongo eta gauzak ezingo dira ikuspegi berrietatik landu.

## KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Gaur egun garrantzitsuak diren arazo geografiko, historiko eta sozialen inguruan ikertzea, argudiatzea eta hainbat formatuetan produktu propioak egitea, tokikotik globalera, informazioa bilatuz, aukuratuz, tratatuz eta antolatuz, eta iturri historikoak eta geografikoak erabiliz, ezagutzak eskuratzeko eta pentsamendu kritikoa garatzeko.

Informazioa bilatu, hautatu eta tratatzearekin lotutako trebetasunak eta prozesuak ezinbesteko tresnak dira ikaste-egoera guztietan, gure egungo ezagutzaren gizartearen testuinguruan. Konpetentzia horiek entrenatzea eta erabiltzea funtsezkoa da datuak, edukiak eta jakintzak, hau da, ezagutza, eskuratzeko eta barneratzeko. Horretarako, bilaketa-sistemak, datu-baseak eta baliabide-plataformak ikasleentzat eskuragarri dauden ingurune digitaletan erabiltzearekin lotutako estrategia konplexuak garatu behar dira, dokumentu eta iturri geografiko eta historikoak erabiltzeaz gain. Prozesuak, ulermenezko irakurketarako, iturrien kritikarako, datuen maneirako eta metaketarako oinarrizko prozesuak barne hartzen ditu, baita partekatutako informazioa modu eraginkorrean konektatzeko eta antolatzeako estrategia egokiak ere, bai banakako, bai talde lanetan.

Hainbat informazio-iturri egiaztatetik abiatuta, iritzi propioak sortzeko, eta oinarririk gabeko iritziak eta informazio faltsuak bereizteko gaitasuna funtsezkoa da gizarte honetan, non,aldi berean, gehiegizko informazioa eta nahita emandako desinformazioa ailegatzen zaigun. Gainera, gizateriari, bai ingurune hurbilenean, bai testuinguru globalean, eragiten dioten arazo eta erronka nagusiekiko interesa eta sensibilitatea izateak eta komunikabideetan eta sare sozialetan sortzen diren eztabaiden jarraipena egiteak, herritarren jarrera arrazionala garatzeko eta pentsamendu kritikoa gauzatzeko beharra dakartza. Ideia propioak sortzea eta ideia horiek pentsamendu-korrante eta mugimendu ideologiko desberdinekin aldatzea edota lotzea, baita gaur egungo eta iraganeko gai nagusiei buruzko elkarrizketa eta eztabaiden bidez argudiatuz azaltzea ere, funtsezkoa da ikuspuntuak elkarri trukatzeko eta identitate indibidualak eratzeko. Are gehiago, jarrera toleranteak finkatzeko, baita pentsatzeko beste modu batzueganako errespetua barne hartzen duen kontzientzia zibikoa sortzeko ere. Azkenik, konpetentzia honen garapenak ideiak eta pentsamenduak originaltasunez eta sormenez islatzeko gai diren produktuak egiteko beharra sortu behar du, produktu horien forma testuinguru desberdinetara egokituz.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM4, KD1, KD2, KD3, KPSII4, KPSII5, HK1, HK3, EK3, KAKK3.

2. Paisaiaren elementuak eta horiek sistema konplexu natural eta antropikoetan —landakoak eta hiri-koak— duten artikulazioa identifikatzea eta aztertzea, baita denboran izan duten eboluzioa ere, eraldaketen kausak interpretatuz eta ekosistemetan dagoen oreka-maila baloratuz, ekosistema horien kontserbazioa, hobekuntza eta erabilera jasangarria sustatzeko.

Paisaiako elementuak eta horien artikulazioa, sistema konplexutan, identifikatzeak eta aztertzeak, aukera ematen die ikasleei euren ingurunea eta horren eboluzioa ezagutzeko eta aztertzeko, paisaien oreka-maila eta arazoak ebaluatuz (biodibertsitatearen galera, lurzoruen higadura, *artifizializazioa*, etab.). Ingurune naturala kontserbatzea helburua izanda, kausa anitzeko ikuspegiak bai aipatutako guztiaren ulermena bai ikasleen jarrera arduratsua errazten ditu. Bestalde, bizi garen espazioen (natura-, landa- eta hiri-inguruneen) ingurumen-kalitateak guztion oraina eta etorkizuna hainbat zentzutan baldintzatzen ditu. Ondorioz, ikasleek, gure gizartean garapen pertsonalerako eskaintzen zaizkien aukerak baloratu beharko dituzte, baina mugak ere, espazio naturalen mantentzea, bisorkuntza eta zaintza bermatzeko eta hiri handietako kutsadura, landa-ingurunearen despopulazioa eta habitat naturalen jasangarritasuna bezalako arazoak ere aintzat hartzeko.

Konpetentzia honek berekin dakar, halaber, krisi klimatikoaren ondorioen larritasunaz eta izaki bizidun guztion duintasuna errespetatzen duten jokabideak hartzeko beharraz jabetzea, garapen jasangarria ziurtatzeko eta jarrera aktiboak eta partaidetzakoak sustatzeko asmoz. Eta horri gehitu behar zaio, ingurunea, oro har, hobetzea, bai toki-mailan, bai mundu-mailan, eta baliabideen banaketa justu, bidezko eta solidarioaren alde, zentzu globalean, egitea.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KPSII2, HK1, HK2, HK3, HK4, EK1.

3. Sistema demokratikoak eta horien oinarrizko legeak eraikitzea —konstituzioak— iritsi arte Historian zehar izan diren antolaketa politiko motak azaltzea, komunitatean bizitzeak berezkoak ditugun betebeharrak eta eskubideak onartuz, herritarren parte-hartzea eta gizarte-kohesioa sustatzeko.

Konstituzioek estatuen elkarbizitza-eredua osatzen duten printzipioak eta oinarriak biltzen dituzte, gure askatasunak eta eskubideak bermatuz, eta, aldi berean, erantzukizun zibila, herritarren ekimena eta gizarte-kohesioa sustatuz. 1978ko Konstituzioa gure iragan hurbileko une jakin baten ondorioa da, demokraziarako Trantsizioarena, baina, zalantzarik gabe, ibilbide luzeago baten jarraipena da, hain zuzen ere, historian zehar gaur egungo sistema demokratikoen eraikuntzara iritsi arte eman diren antolaketa politiko mota desberdinekin lotzen den ibilbidearena. Ibilbide hori ezagutzeak berekin dakartza egungo demokraziarako bidea identifikatzea, memoria demokratikoa eta gure egungo Gizarte- eta Zuzenbide-estatuaren aurrerapen eta lorpen gehienak beren konpromisoaren bidez markatu dituzten pertsona guztien ekarpena ikusaraztea, emakumeek bizitza sozial eta politikoa eskubide osoko herritar gisa parte hartzearen alde egindako borroka kontuan hartuta eta nabarmenduta.

Konstituzioa egungo identitate zibikoaren sinbolo aktiboa da, eta indarrean egotea mehatxatzen duten lege-hausteen aurrean, ikasleen artean zaintza-jarrera sustatu behar du, batez ere askatasunak eta oinarrizko eskubideak erasotzen dituztenen aurrean. Horretaz gain, ezin dugu ahaztu bitartekaritza erabiltzea, edozein gatazkaren kudeaketa baketsua lortzeko, bizikidetzat demokratikoa lortzearen parte ere badela.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KE3, HK1, HK2, KAKK1.

4. Denboran zehar gizarte desberdinek izan dituzten erronka nagusiak ezagutzea, gertatutako aldaketan kausak eta ondorioak eta gaur egun konpondu behar dituzten arazoak identifikatuz, ikerketa-proiektuak garatuz eta informazio-iturri fidagarriak erabiliz, errealitatea ulertzeko eta egungo erronken aurrean proposamen alternatiboak aintzat hartzeko.

Gizateriak, bizirauteko baliabideak eta horiek banatzeko modua antolatzen, gizartean organizatzeko eta parte hartzeko moduari lotutako auzietara, etengabe aurre egin behar die erronkei eta arazoei, bai inguruneari dagokionez, bai bere komunitatearen barruan. Ingurunearekiko elkarrekintzan, gizarte-harremenen antolaketan, boterearen erabileran, eta sinesmen eta adierazpen kulturalen bidez, gizakiak, aipatutako erronka eta arazoaren aurrean eman dituen erantzunek, denboran zehar gertatu diren zibilizazioen oinarriak osatzen dituzte.

Guzti hori, proiektu, erronka edo arazoaren bidez, banaka zein taldean, ikasteak, aukera ematen die ikasleei, alde aurretik eskuratutako jakintzak mobilizatzeko, eta bizi diren munduan garrantzi edo interes berezia duten fenomeno, egoera edo gertaerak aztertzeko eta ulertzeko, baita askotariko estrategiak eta trebetasunak abian jartzeko ere. Ikasteko modu horrek, halaber, ikasleei protagonismoa ematen die beraien ezagutzaren eraikuntzara. Zeregin aktiboa abian jarriko dute produktuen sorrera prozesuan, bai azterketa eta ikerketako estrategien bidez, bai irudikapen grafiko, kartografiko eta bisualeko hainbat modu maneiatuz, eta bai komunikabideak zuzen, kritikoki eta eraginkortasunez erabiliz. Metodologiak, era berean, gauzatzen diren produktuei erabilgarritasun-zentzua ematea suposatzen du, alde batetik, komunitateari eragiten dioten egungo arazoekin haiek lotuz, eta, beste aldetik, aztertzea, ulertzea eta konpromisua eskatzen dituzten arazoak aipatuz. Horrela, iraganeko edo gaur egungo edozein gaik garrantzia hartzen du, errealitatea ulertzen eta egungo erronken aurrean proposamenak eta alternatibak baloratzen laguntzen baitu, Garapen Iraunkorrerako Helburuak lortzea barne.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, STEM3, STEM4, STEM5, KD2, KD3, KPSII3, KPSII5, HK3, HK4, EK1, KAKK1.

5. Joera demografikoak, eta bizi-zikloek eta bizimoduak historian zehar izan duten eboluzioa deskribatzea, egungo gizarteak osatu arte gertatu diren aldaketak eta jarraitutasunak kontuan hartuz, gizarte horiek bilakaera historikoaren ondorio direla ulertzeko, eta oinarriak izateko alternatiba osasungarriak, jasangarriak, aberasgarriak eta giza duintasunarekiko errespetuzkoak sustatzeko, baita gizartearekin eta ingurunearekin konpromisoa bultzatzeko ere.

Garapen pertsonala erabakigarria da ikasleen prestakuntza integralean. Historian zehar izan diren bizi-zikloen eta bizimoduen eboluzioa eta portaera demografikoak ezagutzeak eta deskribatzeak nortasun indibidualak eta kolektiboak (kognitiboak, morala, emozionala...) osatzen dituzten elementuak identifikatzen lagunduko du. Bereziki aipagarria da bizimoduei erreparatzea, baita kultura desberdinetako desberdintasunei, horiek Historian izan duten eboluzioari eta belaunaldi hurbilen artean gertatzen diren aldaketei eta horien arteko harremanei ere.

Prozesu horrek berekin dakar, halaber, lanaren banaketa zergatik gertatu eta gertatzen den aztertzea eta ezagutzea, aurretiazko urrats gisa gizarte- eta familia-esparruko erantzunkidetasuna lantzeko, eta ezarritako rolak kritikoki aztertzeko, baita ingurune hurbilarekin konpromisoa hartu ahal izateko ere. Biztanleriaren osaera eta banaketa, bizi-itxaropena eta bizi-kalitatea lotuta daude, era berean, kultura- eta familia-ingurunean ikasten diren banakako eta taldeko bizimodu eta ohiturekin. Bestalde, baliabideak lortzea eta banatzea eta lana eta laneko betebeharrak izan dira gizakiak Historian zehar garatu dituen bizirauteko oinarriak. Horregatik, beharrezkoa da egungo ekonomiaren oinarri historikoak eta mekanismoak ulertzea, ikasleek erabaki ekonomiko kontzienteak eta arduratsuak hartu ahal izan ditzaten eta alternatiba osasungarriak, jasangarriak, aberasgarriak eta giza duintasunarekiko eta gizartearekiko eta ingurunearekiko konpromisoarekin errespetuzkoak sustatu ahal izan ditzaten.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM5, KD4, KPSII2, KPSII5, HK1, HK2, HK3.

6. Historian zehar izandako sistema ekonomikoak eta hauek izan dituzten garapen-prozesuak azaltzea, aurrerapenaren idearen esanahia baloratzuz, gizartean, ingurumenean eta lurraldean dituzten ondorioekin batera, egungo mundu ekonomikoa eta bere nagusitasun-, mendetasun- eta mendekotasun-harremanak ulertzeko, baita gizarte-eskubideen eta oinarriko baliabideen eskuratze unibertsalaren munta ulertzeko ere.

Historian zehar mundu-mailan ekonomiak izan duen eboluzioa aztertzea lagungarria izango da ikasleentzat, gizartearen garapenarekin duten harremanetik, egungo egoerara arte ulertzeko. Globalizazioaren ekonomiaren funtzionamenduarekin ohitzeko, funtsezkoa da, lehenik eta behin, haren erro historikoak aztertzea, oinarriko kontzeptuak erabiltzeaz gain. Bestalde, bilakaera ekonomikoak Historiaren ikuspegi bat ematen du, egungo ereduaren zergatiarekin lotzen dena, eta gizarte-ongizateaz eta jasangarritasunaz arduratzeko beharrezko zergatiarekin ere. Azken honek, gainera, aurrerapenaren ideari eta haren deribazio politiko, ekonomiko eta sozialei ikuspegi kritikoa ematea dakar.

Gogoan hartu behar ditugu gure hazkunde ekonomikoak eragindako ondorioak, bereziki hazkunde horrek, historikoki, aberastasunaren birbanaketan edo ingurumenean nola eragin duen kontuan izan ez duenean. Oraindik ere, arrisku-egoerak daude, non pertsonak ezin dituzten hainbat helburu beteta ikusi, hala nola gizarte-eskubideak edo oinarriko baliabideak eskuragarri izatea. Gizaki orok du pertsona gisa hazteko eta garatzeko eskubidea, eta, horretarako, bera bizi den gizarteak dituen baliabideak behar ditu. Ikasleek ulertu beharko dute gizarte-eskubideak errespetatzen dituen ingurune batek bere aberastasuna ondasun komunaren zerbitzura jartzen duela.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, HKK5, STEM5, KD1, KD2, KD3, KPSII4, KPSII5, HK1, HK2, HK3, HK4.

7. Talde-identitateen jatorri eta kausa historikoak, eta horiek munduaren konfigurazio eta herentzia sozial, politiko eta kulturalerako elementu gisa duten eginkizuna ezagutzea, euren eboluzioa kritikoki aztertuz, gaur egun duten esanahia ulertzeko, gizatalde baten kide izatearen sentimenduak errespetatzeko, eta sortu eta sortzen duten ondare-aberastasuna eta legatu historiko eta kulturala baloratzeko.

Talde-identitateak komunitateen barruan gertatzen diren lotura kultural eta afektiboetatik sortzen dira. Neurri handiagoan edo txikiagoan, ezaugarri berberak partekatzeak, eta horiei lotuta sentitzeak, kide

izatearen sentimendu komun bat sortzen dute, eta sentimendu horrek identitate indibidualetan ere eragina du. Hori Historiako gairik konplexu eta problematikoenetako bat da eta, ondorioz, gizarte garaikidearena ere bai. Beraz, prozesu horiei erreparatu behar diegu eta prozesu horiek eraikitzen, transmititzen eta eboluzionatzen lagundu duten elementuak ulertu behar ditugu, hala nola pentsamendua, erlijioak, lurraldea, artea, hizkuntza, adierazpen kulturalak eta abar. Bestalde, beharrezkoa da ulertzea, baita ere, zer mekanismo sozial eta emozionalek bultzatu zuten eta bultzatzen duten kide izatearen sentimendu desberdinak sortzera.

Auzi hori bere dimentsio ezberdinetatik baloratu behar dugu, baita kasu batzuetan eragin dituen gatazkez jabetuz. Bereziki garrantzitsua da gizarte-kohesioaren eta lurralde-elkartasunaren printzipioak integratzea, edozein indarkeria motaren biktimen sufrimendua aintzatestea, eta munduan dugun presentzia mugak gainditzen dituen anaitasunezko konpromiso unibertsal batetik ulertzea, Europaren ideia eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaletik datozen printzipioak aintzat hartuta. Ikasleek, haien adierazpenetan, talde-identitateak errespetatzen, eta beren kultura zein arte-adierazpenek ondare komunan duten garrantzia onartzea ikasteak, ondare materiala eta immaterialaren esanahi historikoa eta sinbolikoa ulertzea dakar, baita hura kontserbatzea, sustatzea eta balioestea bultzatzen duten ekintzak sustatzen lagundu ere.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: KE3, KPSII1, HK1 HK2, HK3, KAKK1, KAKK2.

8. Egungo kultura anitzeko errealitatea osatu duten prozesu geografikoak, historikoak eta kulturalak ezagutzea eta ulertzea, aniztasunaren aberastasuna aintzatetsiz eta berdintasunaren, inklusioaren eta gutxiengoekiko errespetuaren aldeko mugimenduen ekarpena baloratuz, diskriminazio mota oro saihesteko.

Historia aurrerapenen eta atzerakaden eboluzio ez-lineala da, eta eboluzio horrek ekarri gaitu gaur egungo mundu globalizatura. Kultura-aniztasuna prozesu historiko horien emaitza da, herri eta kultura desberdinen arteko kontaktu eta harremanen emaitza. Jakina da Aniztasuna aintzat hartzea eta gizartean dauden diferentziak errespetatzea -ikasleak herritar gogoetatsu eta balio demokratikoak defendatzeko kapazak bihurtzeko funtsezko elementuakegungo erronkak direla. Honen ondorio da diskriminazioa jasan duten kolektiboen eskubideak eta egiazko berdintasuna aurrera egitearen aldeko jarrera sustatzea. Horregatik, beharrezkoak dira eskubideak eta askatasunak defendatzeko mugimenduak ezagutzea eta baloratzea, eta arreta berezia eskaini behar zaie bereziki baztertuta dauden kolektiboei.

Gizartean ugaritzen ari diren aurreiritziak eta estereotipoak identifikatzea eta ezeztatzea, diskriminazio oro prebenitzeko funtsezko elementua da, eta, era berean, gizarteratzearen alde jarduteko abiapuntua da. Horregatik da garrantzitsua portaera segregatzaile guztiak desagerraraztea, generoarekin lotutakoak beti barne hartuta. Ikasleek ulertu behar dute komunitatea guztion batura dela, eta eskubide-, aukera- eta erantzukizun-berdintasunean bizi behar dugula elkarrekin, kontuan hartuz ongizate kolektiboa gure ekarpen indibidualen ondorio ere badela.

Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, KE3, KPSII3, HK1, HK2, HK3, KAKK1.

9. Zibilizazioek Historian zehar egin dituzten ekarpen kulturalak, artistikoak, zientifikoak eta pentsamenduzkoak ezagutzea eta balioestea, Euskal Herriari eta Espainiari arreta berezia eskainiz, mende-baldeko kulturaren erroak eta eraldaketak ulertzeko eta egungo edozein kulturaren adierazpenak errespetatzeko.

Herrialde baten eboluzio historikoa ulertzeko, hau pentsamenduaren, kulturaren, artearen, zientziaren eta teknikaren hedapen-fluxu handien testuinguruan kokatu behar dugu. Espainiak eta Euskal Herriak Europako eta munduko zibilizazioari egiten dieten ekarpena, aberatsa eta askotarikoa, perspektibarekin ikusi eta balioetsi behar dugu, balio unibertsalak kontuan hartuz, eta *presentismoan* erori gabe.

2023ko uztailaren 31, astelehena

Bestalde, ekarpen horiek gaur egun oraindik duten eraginaren ondorioz, iraganeko adimen handikoetatik jasotako jakintzek mundua eta gizatasuna ulertzeko modu bat utzi digute. Horri guztiari gehitu behar zaio, zein zaila den gizarte baten bizitza ulertzea, beste herri batzuekiko kontaktu eta elkarrekintzarik gabe, are gehiago gaurko mundu globalizatuan. Ikasleak aniztasunarenkiko errespetuaz eta tolerantziak kontzientziatzea funtsezkoa da gizartearen garapenerako, elkarrizketa, elkartasuna eta kulturen arteko elkar ulertzea baitira edozein mailatan bizikidetzak baketsua lortzeko bitartekoak.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HK1, HK2, HK3, HK4, EK1, KAKK1.

## EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

| Lehen eta bigarren mailak  | Hirugarren eta laugarren mailak   |
|--|---|
| <b>1. konpetentzia espezifikoak</b>  |   |
| 1.1 Egungo eta iraganeko prozesu eta gertaera historiko, geografiko eta sozial esanguratsuei buruzko informazioa modu gidatuan bilatzea, hautatzea, antolatzea eta komunikatzea, hainbat euskarritan aurkeztuz eta zereginaren helburuak kontuan hartuz.   | 1.1. Egungo eta iraganeko prozesu eta gertaera historiko, geografiko eta sozial esanguratsuei buruzko informazioa bilatzea, hautatzea, antolatzea eta komunikatzea, hainbat euskarritan aurkeztuz eta zereginaren helburuak kontuan hartuz.   |
| 1.2 Historiaurretik Aro Modernora arteko gai geografiko eta historikoei buruz modu kritikoan argudiatzea, banaka zein taldean, askotariko iturri fidagarriak kontrastatuz eta baloratuz, eta jakintzagaiaren berezko terminoak eta kontzeptuak egokiro erabiliz.   | 1.2. 2 Aro Garaikideari lotutako gai geografiko eta historikoei buruz modu kritikoan argudiatzea, banaka zein taldean, askotariko iturri fidagarriak kontrastatuz eta baloratuz, jakintzagaiaren berezko terminoak eta kontzeptuak egokiro erabiliz.  |
| <b>2. konpetentzia espezifikoak</b>  |   |
| 2.1 Lurreko zona klimatikoetako paisaia naturalak identifikatzea eta azaltzea, baita paisaia humanizatuak ere, bertako elementuen eta haien arteko erlazioen ikuspegi sistemiko eta integratzaile baten bidez.   | 2.1. Jarduera ekonomikoek eta mugimendu demografikoek lurraldean eta paisaian duten eragina ezagutzea, mundu mailan, natura-, landa- eta hiri-ingurunea kontserbatzen eta hobetzen laguntzen duten portaerak eta ekintzak identifikatuz.  |
| 2.2 Historiaurretik Aro Modernora arte, baliabideak ustiatzearen ondorioz, gizakiok naturaguneak nola eraldatu ditugun aztertzea, baita horrek populazioaren eboluzioarekin duen lotura ere, espazioen iraunkortasun- eta oreka-maila baloratuz, eta jasangarritasunaren aldeko ekintzen beharra aintzat hartuz. | 2.2. Jarduera ekonomikoek eta mugimendu demografikoek gizarteetan duten eragina aztertzea, baliabideak modu unibertsal, zuzen etabidezkoan eskuratzen laguntzen duten portaerak eta ekintzak identifikatuz, gaur egungo erronka demografikoak kontuan hartuta.  |
| <b>3. konpetentzia espezifikoak</b>  |   |
| 3.1 Historiaurretik Aro Modernora arte bizikidetzak eta elkarbizitza arautu dituzten mekanismoak identifikatzea, sortu diren antolaketa politikoko eredu nagusiak nabarmenduz, gaiaren ulermena islatuko duten produktuen bidez.   | 3.1. Gaiaren ulermena islatzen duten produktuen bidez, aro garaikideko antolaketa politikoen eredu nagusiak mundu-mailan, estatu-mailan eta tokikoan adieraztea eta azaltzea; eskubide eta askatasun individual eta kolektiboak ezartzen lagundu zuten sistemei arreta berezia eskainiz, eta eskubide eta askatasun horiek erabiltzeko garaian atzerakadak izan zituzten aldiei edo egoerei kontrajarriz. |
| 3.2 Antzinako Historiako, Erdi Aroko eta Aro Modernoko sistema politiko aipagarrienak adieraztea eta azaltzea, ondorengo demokrazien aurrekaritzat jotzen direnei arreta berezia eskainita, gure egungo gizarteko betebeharrak eta eskubiak bereiziz eta onartuz.  | 3.2. Aro Garaikidean kontzientzia solidarioa sortu, herritarren parte-hartzea eta gizarte-kohesioa sustatu eta desperekotasuna ezabatzeko lan egin zuten mugimenduak eta arrazoiak antzematea, parte hartzeko eta lan egiteko era guztietako estrategiak erabiliz.  |



2023ko uztailaren 31, astelehena

| Lehen eta bigarren mailak  | Hirugarren eta laugarren mailak  |
|--|--|
| <b>4. kompetentzia espezifikoa</b>   |  |
| 4.1 Historiaurretik Aro Modernora arteko aldaketa historiko garrantzitsuen prozesuak azaltzea, baita gizarte horiek izan zituzten erronka nagusiak ere, kausak eta ondorioak identifikatuz, hainbat lekutako gertaerak eta aldiak sekuentzia kronologikoen bidez erlazionatuz eta jakintzagaiaren berezko termino eta kontzeptu teknikoak erabiliz.                  | 4.1. Historia Garaikidearen eta egungo antolaketa politiko eta ekonomikoaren ezagutza esanahitsua bereganatzea eta eraikitzea dedukzio-prozesuen eta proiektu edo erronken bidezko lanaren bitartez, landutako gaiak ulertzen direla islatzen duten produktuak prestatuz.  |
| 4.2 Geografia fisikoari, giza geografiari eta Historiari buruzko informazioa, historiaurretik aro modernora arte, egoki helaraztea, ahozko nahiz idatzizko hainbat komunikazio moten bidez, eta adierazpen grafiko, kartografiko eta bisualen bidez.   | 4.2. Aro Garaikideko aldaketa historiko esanguratsuen prozesuak aztertzea, baita gizarteek aurre egindako erronka nagusiak ere, kausak eta ondorioak identifikatuz, jakintzagaiaren berezko termino eta kontzeptu teknikoak erabiliz eta gertaerak sekuentzia kronologikoen bidez erlazionatuz.  |
| <b>5. kompetentzia espezifikoa</b>   |  |
| 5.1 Portaera demografikoak, horien eboluzioa, izan dituzten aldaketak eta euren zikloak ezagutzea eta interpretatzea, munduan, Euskal Herrian eta Espainian gaur egun ditugun arazo eta erronka nagusiekin lotuz.  | 5.1. Aro Garaikidean zehar portaera demografikoak, horien eboluzioa, izan dituzten aldaketak eta haien zikloak ezagutzea eta interpretatzea, kontzeptu tekniko zehatzak erabiliz eta gaur egun munduan ditugun arazo eta erronka nagusiekin lotuz.   |
| 5.2 Historiaurretik Aro Modernoa arte ezagutzen diren bizi-etapen eta bizimoduaren ezaugarriak identifikatzea, gaur egungoekin konparatuz, bien arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak bereiziz, horien ezagutzak eskaintzen duen aberastasuna baloratuz eta gure inguruan eta ingurune hartan osasungarria eta jasangarria denaren arteko distantzia hautemanez. | 5.2. Aro Garaikidean ezagutzen diren bizi-etapen eta bizimoduaren ezaugarriak identifikatzea, gaur egungoekin konparatuz, bien arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak bereiziz, horien ezagutzak eskaintzen duen aberastasuna baloratuz eta gure inguruan eta ingurune hartan osasungarria eta jasangarria denaren arteko distantzia hautemanez.                    |
| <b>6. kompetentzia espezifikoa</b>   |  |
| 6.1 Historiaurretik Aro Modernora arte ezagutzen diren sistema ekonomikoak azaltzea, gizartean, lurraldean eta ingurumenean dituzten ondorio askotarikoekin batera, hazkunde-erritmoak eta -zikloak daudela ulertuz.   | 6.1. Ekonomiaren garapenaren ideien eta horren gizarte-, lurralde- eta ingurumen-ondorioen esanahi historikoaren ezagutza aplikatzea, nazioartean, estatuan eta tokian, agiri ekonomikoaren bidez, hazkunde eta atzeraldi erritmoak eta zikloak daudela ulertuz, eta planetaren jasangarritasuna bermatuko duten portaera ekosozialak hartzeko beharra kontuan hartuz. |
| 6.2 Historiaurretik Aro Modernora bitarteko sistema ekonomikoek sortutako zenbait gatazka eta nagusitasun-, menderatasun- eta dependentsia-harremanak identifikatzea, gizarte-eskubideen garrantziarekin eta gaur egun oinarritzko balibideetarako eskubide unibertsalaren behararekin lotuz.  | 6.2. aro garaikideko sistema ekonomikoak eta haien garapen-prozesuak aztertzea eta azaltzea, eta elkarren artean alderatzea, haien arteko erlazioak eta baita nazioartean sortu eta sortzen dituzten gatazkak identifikatuz, eta gizarte-eskubideen garrantziarekin eta oinarritzko balibideetarako eskubide unibertsalaren behararekin lotuz.                         |
| <b>7. kompetentzia espezifikoa</b>   |  |
| 7.1 Antzinaroan, erdi aroan eta aro modernoan garatu ziren kulturen eta zibilizazioen elementuak gaur egun arte eraiki diren talde-identitateekin lotzea, horiek zeintzuk diren identifikatuz eta kultura unibertsalari egiten dizkioten ekarpenen buruz hausnartuz.   | 7.1. Historia Garaikidean zehar garatu diren kultura- eta politika-prozesuak gaur egunera arte eraiki diren talde-identitateekin lotzea, norberaren eta besteen identitatea osatzen joan diren ezaugarriak ezagutuz eta errespetatuz, eta bakoitzaren esanahi askotarikoak eta kultura unibertsalari egindako ekarpenak aztertuz.                                      |
| 7.2 Mundu klasikoak, Erdi Aroak eta Aro Modernoak Europari egindako ekarpenak identifikatzea eta azaltzea, ondare historikoa, instituzionala, artistikoa eta kulturala europako herritarren ondare komun gisa aintzat hartuz eta balioetsiz, eta gizatalde baten kide izatearen sentimendu oro-erlijioso, nazionala...errespetatuz.                                  | 7.2. Aro Garaikideko ekarpenak identifikatzea eta azaltzea, ondare historiko, instituzional, artistiko eta kulturala munduko herritarren ondare komun gisa aintzat hartuz eta balioetsiz, eta tokiko, autonomiako, nazioko, Europako eta mundu osoko talde-identitateen oinarritzat onartuz.   |

2023ko uztailaren 31, astelehena

| Lehen eta bigarren mailak   | Hirugarren eta laugarren mailak   |
|---|---|
| 7.3 Ondare artistiko, historiko eta kulturala babestu eta konserbatzeko beharra argudiatzea, tokiko, autonomiako, nazio-ko, europako eta mundu osoko talde-identitatearen oinarri gisa onartuz.   |   |
| <b>8. kompetentzia espezifikoak</b>   |   |
| 8.1 Antzinaroko, Erdi Aroko eta Aro Modernoko zibilizazioak osatu zituzten elementu sozial, historiko, kultural, instituzional eta erlijiosoak deskribatzea, haien sorrera eta garapena espazioan eta denboran kokatuz, eta kultura unibertsalari egindako ekarpen garrantzitsuenak identifikatuz.            | 8.1. Gaur egungo estatu eta hegemonien sorrera eta garapena ezagutzea, espainiako estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eraketa barne, eta horiek espazioan eta denboran kokatzea, haiek osatu dituzten elementu historiko, kultural, instituzional eta erlijiosoak integratuz, sortutako errealitate multikulturala azalduz eta haien ekarpen garrantzitsuenak identifikatuz. |
| 8.2 Jarrera ez-diskriminatzaileak erakustea eta aniztasun soziala eta multikulturala aintzat hartzea, inklusioa, gutxiengo etniko-kulturalen onarpena eta kolaborazioa baloratuz, gizarte-kohesioa bultzatzen duten balio gisa.   | 8.2. Jarrera ez-diskriminatzaileak erakustea eta aniztasun soziala eta multikulturala aintzat hartzea, inklusioa, gutxiengo etniko-kulturalen onarpena eta kolaborazioa baloratuz, gizarte-kohesioa bultzatzen duten balio gisa.  |
| 8.3 Gizonen eta emakumeen benetako berdintasunaren alde argudiatzea, hainbat esparrutan emakumezko pertsonaia garrantzitsuek egindako ekarpena nabarmenduz eta baloratuz, eta edozein egoeratan generoagatiko edozein jarrera eta portaera diskriminatzailearen aurka jardunez.                               | 8.3. Gizonen eta emakumeen benetako berdintasunaren alde argudiatzea, hainbat esparrutan aro garaikidean zehar emakumezko pertsonaia garrantzitsuek egindako ekarpena nabarmenduz eta baloratuz, eta edozein egoeratan generoagatiko edozein jarrera eta portaera diskriminatzailearen aurka jardunez.  |
| <b>9. kompetentzia espezifikoak</b>   |   |
| 9.1 Antzinaroko, Erdi Aroko eta Aro Modernoko zibilizazioen ekarpen kulturalak, artistikoak, zientifikoak eta pentsamenduzkoak ezagutzea eta azaltzea, egungo kulturen erroak osatzen dituztenak adieraziz eta elkartasunaren, justiziaren, askatasunaren eta jasangarritasunaren gure kontzeptuarekin lotuz. | 9.1. Aro Garaikidean zehar, zibilizazioek egindako kultura-, arte-, zientzia- eta pentsamendu-ekarpen aipagarrienak ezagutzea eta azaltzea, eta egungo euskal eta espainiar kultureak garaiko korrante kulturekin lotzea, egungo kulturen erroak nabarmenduz eta beste edozein adierazpen kultural errespetatuz.  |
| 9.2 Egungo euskal eta espainiar kulturen, eta historiaren prozesu handien arteko lotura identifikatzea eta testuinguruan kokatzea, historiaurretik aro modernora arte, elkarri egindako ekarpenak baloratuz.  |   |

## OINARRIZKO JAKINTZAK

| Lehen eta bigarren mailak   |
|---|
| <b>A. Egungo munduaren erronkak</b>   |
| 1- Geografia Fisikoaren eta Historiaren sistematikarako sarrera: prozedurak, terminoak eta kontzeptuak.*  |
| 2- Kokapen espaziala. Espazio geografikoaren irakurketa eta irudikapena: mapak, orientazioa eta eskalak.*   |
| 3- Mapen, eskemen, irudien eta irudikapen grafikoaren azterketa eta iruzkina, toki-esparrutik esparru globalera. Geografia Informaziorako Teknologiak (GIT).*   |
| 4- Gailuen, informatika-aplikazioen eta plataforma digitalen erabilera, Geografia eta Historia aztertzeko. Komunikazio-sareen erabilera segurua.  |
| 5- Informazioaren bilaketa esparru digital eta analogikoetan, informazio horren irakurketa eta balorazio kritikoa eta hainbat formatutan produktu anitzen sorrera, ezagutza lantzeko bide gisa.   |
| 6- Lurrazala aldatzeko erak eta prozesuak: paisaia geografikoak. Erliebearen eraketa eta eraldaketa. Hidrosfera: zikloa, sailkapena eta giza jardueren gaineko eragina. Lurraren mugimenduak eta denborarekin eta klimarekin duten erlazioa. Datu meteorologikoak biltzeko eta grafikoak interpretatzeko metodoak.* |

2023ko uztailaren 31, astelehena

| <b>Lehen eta bigarren mailak</b>   |
|--|
| 7- Tokiko, eskualdeko eta munduko paisaia naturalak: paisaia-motak eta ezaugarriak.*   |
| 8- Euskal Herriko ezaugarri naturalak (kokapen geografikoa, erliebe-formak, hidrografia, klima eta landaredia) penintsulako eta kontinenteko testuinguruan.*   |
| 9- Arrisku eta hondamendi klimatikoak: klima-aldaketak gaur egun, iraganean eta etorkizunean. Giza jardueren eragina. Hondamendi naturalen eta klima-aldaketaren ondorioen aurrean prebentzioa.  |
| 10- Natura-ondarearen oparotasuna eta balioa. Giza eragina ekosistemen aldaketan, iraganean eta gaur egun. Tokiko ingurunearen eta ingurune globalaren kontserbazioa eta hobekuntza.   |
| 11- Demografiako oinarriko kontzeptuak. Datuen bilketa, irudikapena eta interpretazioa. Iraganeko eta egungo migrazio-mugimenduak. Erronka demografikoak gaur egungo munduan.*   |
| 12- Paisaia gizatiartua. Hiri-aglomerazioak eta landatartasuna. Hiriko bizitzaren erronkak eta landa-ingurunearen iraunkortasuna. Landa-munduaren despopulazioaren eta hiri-gainpopulazioaren arazoak.*  |
| 13- Landa- eta hiri-paisaia Euskal Herrian. Egoera demografikoa eta ekonomikoa, eta etorkizuneko arazo eta erronka nagusiak.*  |
| 14- Antolakuntza ekonomikoa: baliabide, sektore, eskualde-merkatu eta merkataritza-politiken deskribapena. Potentzia politiko-ekonomikoen nazioarteko harremanak, kolaborazioa eta tentsioak.*   |
| 15- Aberastasunaren kontzentrazioa eta banaketa. Zergen funtzioa. Bizitzeko gutxienekoaren auzia.  |
| 16- Emakumeen eta nesken papera egungo gizarteetan: hezkuntzarako eskubidea, lana eta boterea eskuratzeko aukerak eta haien kontrako diskriminazio-egoerak munduan zehar. Genero-rolak eta horien isla gizartearen eta kulturaren esparru guztietan.*                                  |
| 17- Nazio Batuen Erakundea eta Garapen Jasangarrirako Helburuak, egungo munduaren dilemak eta kontraesanak; eta maila pertsonalean, toki-, estatu- eta mundu-mailan horiei aurre egiteko aukerak. Pentsamendu kritikoa iritzi propioak garapetzeko abiapuntu gisa.                     |
| <b>B. Gizarteak eta lurraldeak.</b>  |
| 1- Historiaren ezagutza eraikitzeke, ikerketako lan-metodologiei eta -teknikei buruzko sarrera: idatzizko iturri historikoak eta kultura materiala. Artxibo, liburutegi eta museoen eta legatu historiko eta kulturalaren esanahia eta azken horren garrantzia ondare kolektibo gisa.* |
| 2- Metodo zientifikoa eta historialarien ikerketak. Eskola historiografiko eta geografiko desberdinen existentziari buruzko sarrera, eta horrek dakartzan pentsamendu historikoaren metodologia anitzak.   |
| 3- Denbora-lerroen eraikuntza eta interpretazioa, linealtasun-, kronologia-, aldiberekotasun- eta iraupen-ikuspuntuen bidez prozesu historikoak ulertzeko.*  |
| 4- Gizakiaren jatorria, lehen migrazio adierazgarriak eta Paleolitoko lehen gizarte eta kulturen sorrera.*   |
| 5- Paleolitotik Neolitara: elikagaien ekoizpena, sedentarizazioa eta konplexutasun sozialaren areagotzea. Metalen Aroa. Historiaurrearen aztarna Euskal Herrian.*  |
| 6- Zibilizazioen sorrera: estatu-hirietatik Mesopotamiako eta Egiptoko lehen erresuma eta inperioetara.*   |
| 7- Merkataritzaren garapena Antzinaroan. Merkataritza-bide nagusiak. Konkistaren eta kolonizazioaren arteko aldeak.  |
| 8- Gizarte-egituren eboluzioa Mesopotamian, Egipton, Grezian eta Erroman. Antzinaroko gizarteetako kide behartsuenak. Emakumeen eguneroko bizitza eta rol ezagunak.*   |
| 9- Antolaketa politiko mota desberdinak Antzinako Munduan: oligarkia, erresuma, inperioa, errepublika eta demokrazia, Mesopotamiatik Erroma arte.*   |
| 10- Sistema ekonomikoen eboluzioa: lurraldearen giza eraldaketan eta baliabideen eta lanaren banaketa desberdinetan eragina, Historiaurretik Aro Modernora arte. Ziklo demografikoak.*   |
| 11- Erlijioa Antzinaroko antolaketa politiko eta sozialean: politeismoa, monoteismoa eta erlijio nagusien sorrera. Boterearen legitimazioa Mesopotamiatik Erroma arte.*  |
| 12- Giza komunitateen eboluzioa: bizitza nomada eta Harpetarretik polis etahiriak arte*  |
| 13- Iberiar Penintsula eta Euskal Herria Antzinaroaren amaierara arte. Erromanizazioaren kasua Euskal Herrian.*  |
| 14- Arte- eta kultura-adierazpenen esanahia eta funtzioa zibilizazio desberdinetan: Arte paleolitotik Arte erromatarra arte. Ondare material eta immaterialarenganako errespetua eta horien babesa eta kontserbazioa.*   |

2023ko uztailaren 31, astelehena

| <b>Lehen eta bigarren mailak</b>   |
|--|
| 15- Mendebaldeko kulturaren erro klasikoak. pentsamenduaren bidez kultura-identitateak eraikitzeak hastapen ezagunak, Paleolitotik Erromanizazioa arte.  |
| 16- Gizarte-egituren eboluzioa Mendebaldean, feudalismotik estamentuzko gizartera arte. Botere politikoarekin, erlijiosoa-ekin, eta agintaritzaren eboluzioarekin izan zuen erlazioa, Erdi Arotik Aro Modernora arte. Bizimoduak eta eguneroko bi-zitza. Erdi Aroko eta Aro Modernoko gizarteetako kide behartsuenak. Emakumeen eta emakumezko pertsonaia esangura-tsuen rol ezaguna.* |
| 17- Antolaketa politikoa eta estatu-formulazioak Erdi Aroan eta Aro Modernoan. Antolaketa politiko mota desberdinak: erresumak, inperioak, errepublika komertzialak eta parlamentarismo britainiarra.*   |
| 18- Erlijioak antolaketa politiko eta sozialean, boterearen legitimazioan eta identitate erlijiosoen eraketan izan duen zeregi-na: monoteismoaren eta erlijio nagusien garaipena. Kristautasunaren hedapena eta Islamaren sorrera eta hedapena. He-resiak, jazarpenak, erreforma protestanteak, kontrarreforma eta erlijio-gerrak.*  |
| 19- Hiria eta landa-mundua Erdi Aroko eta Aro Modernoko Historian zehar: landa-mundutik —hiribilduak eta herrixkak— hirietara itzultzea.*  |
| 20- Erdi Aroko eta Aro Modernoko merkataritza-bide nagusiak, eta pertsonak eta baliabideak kontrolatzeko estrategiak: ingurumen-, politika-, ekonomia- eta geografia-faktoreak. Aurkikuntza nabarmenak, bidaiak, kolonizazioa eta merkataritza. Hegemonia eta geopolitika Aro Modernoan zehar. Jatorrizko zibilizazioak.*  |
| 21- Iberiar Penintsula Erdi Aroan eta Aro Modernoan.*  |
| 22- Euskal Herria Erdi Aroan eta Aro Modernoan: Iruñeko erresumaren eraketatik Nafarroako erresumaren konkistara arte. Lurralde historikoak Gaztelako koroan sartzea. Foru-sistemaren sorrera eta sendotzea. Eraldaketa sozial, ekonomiko eta kulturalak. Euskaraz idatzitako lehen testuak. Gutxiengoaren eta emakumeen egoera: agotak, juduak, sorgin-ehiza, etab.*                  |
| 23- Erdi Aroko erroak mendebaldeko kulturaren. Humanismoa eta Kristautasuna. Zibilizazio islamikoaren eragina Europako kulturaren: Al-Andalusetik otomandarrek arte. Pentsamendua Erdi Aroko kulturetan eta kultura modernoetan. Arte prerroma-nikotik Barrokora arte.*  |
| 24- Zientzia, medikuntza eta aurrerapen zientifiko eta teknologikoak Erdi Aroan eta Aro Modernoan: erantzun berriak munduari buruzko galdera nagusiei. Arrazionalismoa eta enpirismoa.*  |
| <b>C. Konpromiso zibikoa</b>   |
| 1- Giza duintasuna eta eskubide unibertsalak. Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa.  |
| 2- Genero berdintasuna. Adierazpen eta jokabide ez-sexistak eta hizkuntzaren erabilera ez-sexista.   |
| 3- Toki-ingurunean eta ingurune globalean gaur egun dauden erronken eta arazoaren aurrean interesa.  |
| 4- Bizikidetzaren zibikoa eta kultura demokratikoa. Gizarte zibileraren kide izatea eta inplikatzeko. Komunitate-proiektuetan parte-hartzea.   |
| 5- Ingurumen-kontzientzia. Izaki bizidunen eta planetarenganako errespetua eta horien babeseta eta zaintza.  |
| 6- Natura-, historia-, arte- eta kultura-ondarearen zaintza eta babeseta. Euskal Herrian eta Espainian natura- eta kultura-on-darea babesteko legeak.*   |
| 7- Bizi-zikloak, aisialdiaren erabilera eta kontsumo-ohiturak: egungo eta iraganeko gizarteetako bizimoduetan dauden desberdintasunak eta aldaketak.   |

| <b>Hirugarren eta laugarren mailak</b>   |
|--|
| <b>A. Egungo munduaren erronkak</b>  |
| 1- Testu historiografikoak, datu estatistikoak eta abarrek emandako informazioaren bilaketa eta tratamendua, esparru digi-tal eta analogikoetan. Informazioaren irakurketa eta balorazio kritikoa, iturrien fidagarritasuna egiaztatuz eta sareetako desinformazioaren arazoa kontuan hartuz. Produktu desberdinak sortzea hainbat formatutan, ezagutza lantzeko bide gisa.* |
| 2- Herritartasun etiko digitala: pribatutasunaren, datuen babesaren, <i>netiketaren</i> eta jabetza intelektualaren auziak, jakintza-gaiaren lanari aplikatzea.  |
| 3- Historia-, Arte- eta Geografiaren berriazko lexikoa erabiltzea.*  |
| 4- Geografia aztertzekeko teknikak eta metodoak: testuen azterketa, edozein euskarritan adierazitako mapak, eskemak, sintesiak, grafikoak eta irudiak interpretatzea eta prestatzea. Informazio Geografikoaren Teknologiak eta kontzeptu espazia-len analisi eta interpretaziorako sarrera -hala nola kokapena, eskala, konexio eta hurbiltasun espaziala, etab.-.*          |

2023ko uztailaren 31, astelehena

| <b>Hirugarren eta laugarren mailak</b>  |
|---|
| 5- Gaur egungo munduaren antolaketa politikoa: estatu motak eta gobernu ereduak. Zuzenbide-estatua eta konstituzioren balioak. Demokrazia: printzipioak, prozedurak eta erakundeak.*  |
| 6- Gaur egungo gatazka nagusiak. Nazioarteko aliantzak eta erakundeak (NBE, NATO, ELGA, EB, AEE, APEC, etab.), bi-tartekaritza eta bake-misioak. Esku-hartze humanitarioa eta Justizia Unibertsala. Genozidioak eta gizateriaren aurkako krimenak. Gerrak, terrorismoa eta beste indarkeria politiko mota batzuk.                                       |
| 7- Egitura ekonomikoak gaur egungo munduan: ekonomia globalizatua. Eragile ekonomikoak, aldaketak ekoizpen-sektoreetan eta merkatuen funtzionamenduan. Publikoa eta pribatuaren auzia. Baliabideak, despaketotasuna eta injustizia toki- eta mundu-testuinguruetan. Migrazioak, kultura-aniztasuna eta mestizajea gaur egungo gizarteetan.*             |
| 8- Emakumeen papera gaur egungo gizarteetan: hezkuntzarako eskubidea, lana eta boterea eskuratzeko aukerak eta haien aurkako diskriminazio edo indarkeria egoerak munduan zehar. Mugimendu feminista. Jarrera eta portaera sexisten identifikazio gure inguruan eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalarekiko lotura.*                               |
| <b>B. Gizarteak eta lurraldeak.</b>   |
| 1- Historiaren ezagutza eraikitzeke, ikerketako lan-metodologiei eta -teknikei buruzko sarrera: iturri historikoak, iraganari buruzko ezagutza eraikitzeke oinarri gisa. Eskola historiografikoen teoria eta metodoen arteko kontrastearen zergatia ezagutzea, Historia zientzia gisa eta eskola horien jarraitzaileen ikuspegiak aztertzekei ekiteko.* |
| 2- Azalpen historikoaren kausa anitzak. Prozesu historikoetan parte hartzen duten osagai ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalen identifikazioa, korrante historiografikoen arabera.   |
| 3- Denbora historikoa: Denbora-lerroen eraikuntza eta interpretazioa, prozesu historikoak ulertzeko, linealtasun-, kronologia-, aldibereketasun- eta iraupen-ikuspuntuen bidez.*  |
| 4- Gaurkotasuneko arazoaren aurrean norberaren iritzi argudiatuak eratzea, Historiarekin erlazionatuz eta testuinguruan kokatuz. Aurkezpen eta eztabaiden bidez horiek defendatu eta kritikoki aurkeztu.*   |
| 5- Eraldaketa politikoa Aro Garaikidean: mendekoak izatetik, herritarrak izatera. Legea, kontratu sozial gisa: eskubide indibidual eta kolektiboen lorpena. Iraultza Liberalak. Sistema liberalen jatorria, eboluzioa eta egokitzapena, munduan zehar. Ideologia politiko nazionalista berriak. Demokraziaren eraikuntza.*                              |
| 6- Sistema liberalen jatorria, eboluzioa, erresistentziak eta egokitzapena Espainiako Historia Garaikidean. Eraldatze prozesuaren oinarriestuingurua eta alde politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen azalpena, Independentzia Gerratik 1931era arte.*   |
| 7- Euskal lurraldeak Independentzia Gerratik Gerra Karlistak arte: Foru Sistema desagertzeko prozesua eta Ekonomia Itunen Hitzarmen Ekonomikoen sorrera.*   |
| 8- Sistema kapitalista, sorreratik gaur egun arte. Ekonomia industria-iraultzetatik: kolonialismoa, inperialismoa eta mendekotasun ekonomiko eta kultural berriak. 1917ko Errusiako Iraultza eta bere ondorioak.*   |
| 9- Industrializazioa Euskal Herrian, eraldaketa ekonomiko eta sozialak, eta euskal-nazionalismoaren sorrera.*   |
| 10- Aro Garaikideko ziklo demografikoen, bizimoduaren eta gizarte-antolaketa-ereduen eboluzioa. Langile-mugimenduetatik ongizate-estatura arte.*  |
| 11- Espainiaren eta Euskal Herriaren erronka demografikoak Aro Garaikidean: landa-exodotik hiri-kontzentrazioa.   |
| 12- Demokrazien krisia eta totalitarismoaren sorrera: faxismoak eta estalinismoa. Askatasunaren, berdintasunaren eta giza eskubideen aldeko gizarte-mugimenduak Mundu Garaikidean. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala.*   |
| 13- Nazioarteko harremanak Aro Garaikidean: Lehen Mundu Gerra, Gerren Arteko Garaia, 1929ko Krisia eta Bigarren Mundu Gerra, guztien kausak eta ondorioak.*   |
| 14- Espainiako Bigarren Errepublika: erreformak, horien ondorioak eta gizartearen polarizazioa. Ordenamendu arauemailer autonomikoaren sorrera: 1936ko Euskal Autonomia Estatutua. 1936ko Gerra Zibila eta diktadura frankista, ondorioak Euskal Herrian.*  |
| 15- Espainiako konstituzioen eboluzioa: 1812ko konstituziotik 1978ko konstituziora arte.*   |
| 16- Oinarri geostrategikoak XX. mendearen bigarren erditik gaur egunera arte: bloke-politika eta Gerra Hotza. Amerikako Estatu Batuen nagusitasunetik mundu multipolarra. Nazioarteko erakundearen zeregina: NBEren sorrera eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala.   |
| 17- Europa eraikitzeke prozesua. Integrazio ekonomikoa, monetarioa eta herritarra. Europako erakundeak. Europaren eta europeismoaren balioen etorkizuna.  |

2023ko uztailaren 31, astelehena

| Hirugarren eta laugarren mailak   |
|---|
| 18- Euskal Autonomia Erkidegoaren antolaketaren eta administrazioaren oinarritzko elementuak Espainiako Estatuaren testuinguruan: autogobernuaren iturriak eta 1979ko Autonomia Estatutua.*   |
| 19- Emakumeek burututako eskubide zibil eta politikoen lorpena eta emakumeen eta gizonen benetako berdintasunaren aldeko borroka. Historia Garaikideko emakume esanguratsuak.*  |
| 20- Arte eta kultura adierazpen berriak Aro Garaikidean, munduan, Espainian eta Euskal Herrian: eredu tradizionalak haustura, izaera kritiko eta esperimenter berri batetik. Neoklasizismotik XXI. mendeko joera artistikoetara. Ondare materiala eta immateriala errespetatzea eta kontserbatzea.* |
| 21- Eraldaketa zientifiko eta teknologikoak munduan, Espainian eta Euskal Herrian Aro Garaikidean.  |
| 22- Kultura-aldaketak eta gizarte-mugimenduak mundu garaikidean. Eskubideen lorpena gizarte demokratiko garaikideetan. Memoria demokratikoa. Komunikabideen eta sare sozialen zeregina.   |